

**ARTIUM MUSEOA**  
Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa  
Vitoria-Gasteiz • Araba  
[www.artium.eus](http://www.artium.eus)

## **Moyra Davey. Lanak / Obras / Works**



*i confess, 2019 (fotograma). Moyra Davey*

A3 aretoan, 2020ko urriaren 8tik 2021eko martxoaren 7ra

**Komisariotza: Beatriz Herráez / Nicolas Linnert**

*Moyra Davey. Lanak / Obras / Works* erakusketa Artium Museoaren ekoizpena da

Argibide gehiago: [www.artium.eus](http://www.artium.eus)

## ARTIUMEK EUROPAKO MUSEO BATEAN EGITEN DEN MOYRA DAVEYREN LEHEN ERAKUSKETA AURKEZTU DU: *LANAK / OBRAS / WORKS*

New Yorken bizi den artista kanadarraren 80ko hamarkadaren erdialdetik gaur egunera arteko ekoizpenaren panoramika eskaintzen du erakusketak

Moyra Daveyren lanak zinema, argazkigintza eta idazkera uztartzen ditu

Filmak eta argazki sailak bildu dira erakusketan, artistak bere ibilbidean jarraitutako iturri eta prozesuetara hurbiltzeko asmoz

Artium Vitoria-Gasteizko Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoak *Moyra Davey. Lanak/Obras/Works* erakusketa aurkeztu du. (A3 aretoa, 2021eko martxoaren 7ra arte). New Yorken bizi den artista kanadarrari Europako museo publiko batean eskainitako lehen erakusketa da, eta artistak 80ko hamarkadaren erdialdetik gaur egunera arte egindako lanen panoramika bat eskaintzen du, zinema, argazkigintza eta idazketa ardatz dituzten lanekin. Artistak bere ibilbidean jarraitutako lan-iturri eta -prozesuetara hurbiltzen laguntzeko asmoz, erakusketak, alde batetik, bideo-lan nabarmen batzuk aurkezten ditu, horien artean berriena, *i-confess* (2019); eta, bestetik, argazki sail batzuk, Artiumen proiektu honetarako egindako bat barne. Beatriz Herráez eta Nicolas Linnert izan dira erakusketaren komisarioak. Artium Museoak artistaren bost film esanguratsuenen gidoi egokituak biltzen dituen edizio bat prestatu du (ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz).

Moyra Davey-ri (Toronto, Kanada, 1958) eskainitako erakusketa honetarako hautatu diren pelikulen artean haren azken ekoizpena dago, *i confess* (aitortzen dut) 2019. Bertan, egileak Quebec garaikidearen errealitate soziopolitikoaz aztertzen du James Baldwin idazlearen, Pierre Vallières iraultzailearen eta Dalie Girouxen (Otwawako Unibertsitateko filosofia politikoko teoriararia) lanetatik abiatuta. Aditu horien lekukotzak eta memoriak Daveyren artxibo biografikotik datozen beste batzuekin elkartzen dira, artistak bere lanean sarritan darabilen estrategia.

Era berean, *Les Goddesses* (Jainkosak), 2011, *Hemlock Forest*, 2016 eta *Wedding Loop*, 2017 filmek osatutako trilogia bat ere biltzen du erakusketak, non Daveyk bere familiaren eta Mary Wollstonecraft idazle eta feminismoaren aitzindariaren arteko analogia bat ezartzen duen. *Notes on Blue*, 2015, filmak osatzen du haren filmografiaren ibilbidea, Derek Jarman artistaren *Blue*, 1993, eta Manhattanen filmatu eta The Collective for Living Cineman 1990ean aurkeztutako *Hell notes* (Infernuko oharak) filmak abiapuntu hartuta.

Lan multzo horrekin batera, zenbait argazki sail ere biltzen ditu erakusketak, duela gutxiko eta artxiboko irudi analogikoak. Baita tolestu, zigilatu eta nazioarteko postaz bidalitako argazki-multzoak ere. Irudi horiek Davey-rekin solasean aritzen diren hartzaileei zuzenduta daude, eta, azkenean, erakusketa-aretoetan ireki eta argazki-talde gisa muntatzen dira. Horrela sortu zen *Blue Ruin* (2020), erakusketa honetarako propio ekoiztutako eta Museoko langile eta laguntzaileei bidalitako argazki sorta.

Hau da Moyra Davey-k Europako museo publiko batean egiten duen lehen erakusketa. Haren lana bilduma handietan dago —besteak beste, New Yorkeko MoMA eta Metropolitan Museumen eta Londresko Tate Modern museoan—, eta nazioarteko hitzordu ezagunetan egon da ikusgai, Kassel eta

Atenaseko azken dokumenta-ren edizioan, esaterako. Ondoko lekuetan egin dira haren bakarkako erakusketa berrienetako batzuk: National Gallery of Canada-n, Otawan (2020); Portikus-en, Frankfurt/Mainen (2017); Bergen Kunsthall-en, Norvegian (2016), Camden Arts Centre-n, Londresen (2014) eta Kunsthalle Basel-en, Suitzan (2010).

## **Artiumen ikusgai dauden erakusketak**

**Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian.** 2020ko otsailaren 8tik aurrera

**Moyra Davey.** 2020ko urriaren 8tik 2021eko martxoaren 8ra

**Gema Intxausti. Jendetzaren erdian, atxiloketari begira.** 2020ko azaroaren 15era arte

**Zinemaldiak 24 edizio izan ditu. Ez dugu gogoko.** 2020ko irailaren 9tik abenduaren 8ra

**JAI. Zerbait gertatzeko derrigorrezko desbideratzea.** 2020ko urriaren 8tik abenduaren 20ra.

## **Aurki**

**Juncal Ballestín. Bizitza ariketa gisa.** 2020ko azaroaren 13tik 2021eko maiatzaren 16ra

**June Crespo. Helmets.** 2020ko abenduaren 4tik 2021eko maiatzaren 2ra